

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

2445

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 17koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez lan-kontratudun finkoak hartzeko barne sustapen txandaren bidez hautaketa-prozesurako deia egiten baita Sistema eta Administrazioako eta Zerbitzuetako teknikari kategoriarekin eta non oinarri espezifikokoak onartzen diren.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legeak Etxepare Euskal Institutua sortu eta arautzen du, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, euskara eta euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko, hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan.

2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak, zeinak onesten baitu Etxepare Euskal Institutuaren antolaketa eta funtzionamendu erregelamendua, 6. Artikuluaren 4. Apartatuan, xedatzen du Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari dagokiola erabakitzea hartako lanpostuetara sartzeko araubidea, hautaketa-proben betekizunak eta ezaugarriak, eta orobat lanpostuak betetzeko eta sustapen profesionalerako prozedurak kudeatzea eta ebaztea, merezimendu, gaitasun, berdintasun eta publikotasun printzipioen arabera.

2009ko martxoaren 25eko, Etxepare Euskal Institutuko (EEI) zuzendariaren ebazpenak Institutuaren Lanpostuen Zerrenda argitaratzea agintzen zuen eta ebazpen hau 2009ko martxoaren 26an Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian publikatu zen.

Hala ere, aipatutako ebazpen hori indar gabe utzi zuen 2010eko uztailaren 23an EEI-ko zuzendariak emandako ebazpenak. Horrek, lanpostuen berraztertze baten ondorioz, lan zerrenda berri bat beharrezkoa zela adierazi zuen eta 2010eko abuztuaren 30ean publikatu zen Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian.

Adierazitakoaren ildora, EEI-k 2010. urtetik jardunean dirau eta urteak aurrera egin ahala praktikak EEI-k egitura berria behar duela frogatu du bere egunekoari aurre egin ahal izateko. Hori dela eta, EEI-ko zuzendariak 2023ko martxoaren 17ko emandako Ebazpenaren bidez lanpostu berrien zerrenda argitaratzeko agindu zuen 2023ko martxoaren 17an Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian publikatu zelarik.

2023ko maiatzaren 17ko ebazpenak agindutakoaren arabera, lan-kontratudun finkoak hartzeko hautaketa-prozesurako deia egiten zen Komunikazio Digitalerako, Sistema eta Administrazioako eta Zerbitzuetako teknikariaren eta Administralari laguntzaile kategoriarekin eta prozesuaren oinarri orokorrak ezartzen ziren.

Aipatutako ebazpenean, eskaerak oinarri espezifikokoak argitaratzen zirenean egin ahalko zirela adierazten zuen eta horren ondorioz oinarri espezifikokoak argitaratu eta eskaerak egiteko epea zabaltzen da.

Beraz, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. Artikuluan eta II. tituluko IV. kapituluan langileak hautatzeko ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa kontuan harturik, eta aipatutako legearen 6.1.i artikulua aurreikusitako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barne sustapen bidez kontratatuko den Administrazio eta Zerbitzuetako teknikari mailako hautaketa proben deialdia egitea.

Jarraituko den sistema oposizio-lehiaketa delarik.

Bigarrena.– 2023ko martxoaren 17ko Ebazpenaren ondorioz, Etxepare Euskal Institutuko lan-kontratuko Administrazio eta Zerbitzuetako teknikari mailako hautaketa-prozesuen oinarri espezifikoak onartzea. Oinarriok ebazpen honen I. eranskinean biltzen dira.

Hirugarrena.– Hautaketa-prozesuak amaitu ondoren, hala badagokio deialdiko lanpostuetako bakoitzari dagokion lan-poltsak eratzea.

Laugarrena.– Eskaintza hau eta deialdiaren oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek bide-administrazioa amaitzen du. Haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu dezakete interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2023ko maiatzaren 17a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

ERANSKINA

PLAZA BAT: ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO TEKNIKARIA.

1.– Plazaren ezaugarriak:

– Postua: Komunikazio digitalerako teknikaria; kodea: EL11; zuzkidura: 1; ordainsari-maila: 12, EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen hitzarmenean.

– Destinoa: Donostia / San Sebastián.

2.– Xedea eta eginkizunak.

2.1.– Xedea:

Arlo ekonomiko-administratiboan, pertsonalaren arloan, giza baliabideen arloan eta barne-arau-bidearen arloan hainbat espediente eta prozedura kudeatzea. Era berean, proposamen desberdinak egingo ditu bere jardun-eremu bakoitzari buruz.

2.2.– Eginkizun nagusiak:

– Etxepare Euskal Institutuaren administrazioa kudeatzea.

– Aurrekontu-proposamenak egitea.

– Arlo ekonomiko-administratiboko espedienteak kudeatzea.

– Pertsonalaren arloan nominak kudeatzea.

– Pertsonaleko espedienteak kudeatzea.

– Langileak kudeatzea.

– Giza baliabideen arloan hornikuntza prozesuak kudeatzea.

3.– Deialdian parte hartzeko baldintzak:

3.1.– Titulazioa:

Lizentziatura, Goi-mailako Injinerutza, Arkitektura.

3.2.– Euskara:

3. hizkuntza-eskakizuna.

3.3.– Berariazko ezagutzak:

Ingeleseko ezagupenak maila aurreratuan (B2).

4.– Hautaketa Prozedura.

Barne promozio txandaz gauzatuko da eta oposizio-lehiaketa prozedura jarraituz egingo da.

4.1.– Oposizio-fasea:

Gehieneko puntuazioa: 55 puntu.

Kasu honetan barne txandako deialdia izanik oposizio-faseak zati bakarria izango du, hau da, zati praktikoa, bete nahi diren lanpostuetarako beharrezko jakintza eta gaitasuna baloratzeko.

Hori dela eta, 2023ko maiatzaren 17ko ebazpenean non prozesuaren oinarri orokorrak arautzen diren, barne sustapen txandako izangaiak lehen ariketa hori egiteaz salbuetsita egongo direla eta horri dagozkien 20 puntuak emango zaizkiela ezartzen da.

Ariketa praktikoa:

Gehienez 35 puntuko balioa izango du. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zeregin nagusiekin zerikusia dutenak. Ariketa gainditzeko gutxienez 17,5 puntu lortu beharko dira.

Epai-mahaiak zuzenketa irizpideak adieraziko ditu ariketen txostenean.

4.2.– Lehiaketa-fasea:

Gehieneko puntuazioa: 45 puntu.

Merezimenduen egiaztagiria aurkeztu eta balioestea, haien puntuazioa edo balioa zenbatesteko:

a) Esperientzia:

Bakar-bakarrik balioetsiko da lan-bizitzaren ziurtagiriaren eta dagokion administrazio publikoan egindako zerbitzu eta eginkizunen ziurtagiriaren bidez behar bezala justifikatutako esperientzia. Gehienez 33 puntu lortu ahal izango dira.

– Sektore publikoa eta hari lotutako erakundeak barne, eskaintzen den lanpostuko kategoriako lanetan emandako zerbitzuak azken zortzi (8) urtetan: 0,35 puntu esleituko dira lan egindako hila-bete bakoitzagatik.

– Lanpostuko eginkizunekin zerikusi zuzena duten lanpostuetan azken zortzi urtetan (8) herri-administrazioetik kanpo bildutako esperientzia: 0,11 puntu lan egindako hilabete bakoitzagatik.

Ondorio horietarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

Etxepare Euskal Institutuan egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira. Gainerako herri-administrazioetan lanean egindako zerbitzuak alegatu eta egiaztatzeko egiaztagiria aurkeztea derrigorrezkoa izango da. Egiaztagiri hori administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduaren aurkeztu daiteke. Nolanahi ere ziurtagirian, lan-denboraldiak bereizita adierazi behar dira, eta ondoko datuak zehaztu: lanpostuaren kidegoa, eskala, azpieskala eta mota edo kategoria, eta bertan izandako eginkizunak eta dedikazio-araubidea. Datu hori zehazten ez denean, lanaldi osoaren % 50 zenbatuko da.

b) Deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoa.

Ikastaroak, betiere, ikastaroaren ziurtapeneko fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko dira, ikastaroaren amaierako data eta ikastaroaren iraupeneko orduak adierazita.

Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten trebakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak: gehienez ere 2 puntu lor daitezke eta kurtso bakoitzak 0,4 puntuko balioa izango du.

Lortu nahi den lanpostuaren berezko atazekin eta eginkizunekin zerikusia duten gaietako ikastaroak gainditzeagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Institutuak, unibertsitateek edota beste herri-administrazio batzuek antolaturik edota homologaturik badaude, edo prestakuntza-gaietan, giza baliabideen garapenean, lanbide-gaikuntzan edo ikerketa-arloan izen handia duten erakundeek emandakoak badira.

Gutxienez 30 orduko iraupeneko ikastaroak besterik ez dira baloratuko. Azken 10 urteotan eginitako ikastaroak besterik ez dira baloratuko. Egiaztagirian ikastaroa noiz eginitakoa den adierazita dutenak besterik ez dira baloratuko eta ordu kopuruak edota kredituak adierazita egon beharko dira. Egiaztagirian kreditu kopuruak soilik agertzen bada ordu-kopuruak zehaztu gabe kreditu bakoitzeko 25 ordu zenbatuko ditugu.

c) Titulazio gehigarriak.

Titulu ofizialak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Gehienez ere 6 puntu lor daitezke atal honetan.

Titulu ofizialengatik (diplomatura, ingeniari teknikoa, arkitektura teknikoa, lizentziatura, ingeniari teknikoa, arkitektura edo baliokideak), lanpostu horretarako baldintza gisa eskatu ez badira, gehienez ere 5 puntu titulu bakoitzeko.

Lanpostuaren eginkizunekin lotutako master, espezialitateko titulu ofizial, doktoretza, gradu-ondoko titulu eta unibertsitateen berezko tituluengatik (gutxienez 150 ordu), gehienez ere 2,5 puntu titulu bakoitzeko.

d) Beste hizkuntza batzuen edo eskatutakoa baino goragoko mailen ziurtagiriak.

Behar bezala egiaztatutako titulu ofizialak bakarrik balioetsiko dira.

Hizkuntza bakoitzean aurkeztutako maila goreneko egiaztapena balioetsiko da, eta gehieneko puntuazioa 2,5 puntu dira.

Meritu gisa kontutan hartuko dira, betiere, ez baldin badira prozesuan parte hartzeko funtsezko eskaera, kasu horretan ez da aparteko meriturik gehituko.

Gehienez ere lau (4) puntu emango dira, betiere baremo honen arabera:

Ingelesa:

– C1 jakite-maila (menderatze operatibo eraginkorra): 0,5 puntu.

– C2 jakite-maila (maisutza): 2 puntu.

Frantsesa:

– B2 jakite maila (ezagupenak maila arruntean): 0,25.

– C1 jakite-maila (menderatze operatibo eraginkorra): 0,5 puntu.

– C2 jakite-maila (maisutza): 2 puntu.

Adierazten diren merituen izateko erreferentzia-data eskaera aurkezteko epearen amaiera-data izango da eta ez da egingo probarik titulu horiek egiaztatzeko. Titulu ofizialak soilik kontutan hartuko dira.

GAI ZERRENTA

1.– Auditoretza (I). Auditoretzaren Legea. Oinarrizko kontzeptuak.

2.– Auditoretza (II). Metodologia.

3.– Auditoretza (III). Informeak eta iritziak.

- 4.– Auditoretza (IV). Sektore publikoaren auditoretza-printzipioak eta -arauak.
- 5.– Kontabilitatea (I). Kontabilitatearen kontzeptua.
- 6.– Kontabilitatea (II). Eginkizuna eta helburua.
- 7.– Kontabilitatea (III). Kontabilitatearen plan orokorra.
- 8.– Kontabilitatea (IV). Balantzea.
- 9.– Kontabilitatea (V). Egitura eta ondare-masak.
- 10.– Kontabilitatea (VI). Eraitzen kontua. Prestakuntza egiteko egitura eta arauak.
- 11.– Kontabilitate publikoa (I). Kontabilitate publikoaren plana.
- 12.– Kontabilitate publikoa (II). Aurrekontu-kontabilitatea eta ondare-kontabilitatea.
- 13.– Kontabilitate publikoa (III). Aurrekontu-erabaketa eta diruzaintzako gerakina.
- 14.– Euskal Administrazioaren jardura ekonomikoaren kontrola: Araudi erregulatzailerik; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa (I). Xedea eta printzipio orokorrak.
- 15.– Euskal Administrazioaren jardura ekonomikoaren kontrola: Araudi erregulatzailerik; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa (II). Kontabilitatea eta kontabilitate kontrola.
- 16.– Euskal Administrazioaren jardura ekonomikoaren kontrola: Araudi erregulatzailerik; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa (III). Kontu-hartzailetzako kontrola eta horren helburua.
- 17.– Euskal Administrazioaren jardura ekonomikoaren kontrola: Araudi erregulatzailerik; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa (IV). Kontrol kontu-hartzaile motak: kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketakoa, kontrol ekonomiko-fiskala, kontrol ekonomiko-normatiboa, kontrol ekonomiko-administratiboa.
- 18.– Herri Kontuen Euskal Epaitegia (1/1988 Legea). Eginkizunak eta jarduna. Fiskalizazio-funtzioa.
- 19.– Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (I). Modalitateak.
- 20.– Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (II). Bazkideak eta onuradunak.
- 21.– Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (III). Kontingentziak eta prestazioak.
- 22.– Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (IV). Araubide ekonomikoa.
- 23.– Minimis erregelamendua. Kontzeptua. Betekizunak.
- 24.– 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (I). Printzipio orokorrak.
- 25.– 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (II). Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna.
- 26.– 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (III). Prebentzio-, zuzentze- eta hertsatze-neurriak.

27.– 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (IV). Gardentasuna.

28.– Etxepare Euskal Institutuaren araubide ekonomikoa.

29.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (I). EAeko administrazio publikoetako langileak (II. titulua).

30.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (II). Zuzendari-tzako langileak (III. titulua).

31.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (III). Ordain-sari-sistema (IX. titulua).

32.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (IV). Eszedentziak (140-160. Art-ak)

33.– 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (V). Eskubide indibidualak (XI. titulua. I. kapitulua).

34.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko lan-kontratudunen kolektiboen hitzarmen kolektiboa.

35.– Etxepare Euskal Institutuaren lan-baldintzen akordioa.

36.– EIKA programaren erabilera eta ezagutza.

37.– IZARO programaren erabilera eta ezagutza.

38.– Zirkularra, Lan Harremanen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanaldi eta ordutegiei buruzkoa.